



HEZKUNTZA SAILA
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailburuordetza
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Universidades
e Investigación
Dirección de Política y Coordinación
Universitaria

Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaritza 2019ko urriaren 21eko **EBAZPENA**, Ikasiker lankidetzak-beketa, 2019ko irailaren 1etik 2020ko irailaren 30era bitarteko aldirako eskaera egin dituztenen zuzendu beharreko eskaerak zerrendatzen dituena.

GERTAKARIAK

Lehena.- Hezkuntza sailburuaren 2019ko uztailaren 9ko AGINDUAREN bidez Ikasiker lankidetzak-beketarako deialdia egin zen, 2019ko irailaren 1etik 2020ko irailaren 30era bitarteko aldirako (2019ko uztailaren 24ko 140. zk.ko EHAA).

Bigarrena.- Aginduak 9. artikuluan xedatzen duenez, eskaerak aurkezteko epea 2019ko irailaren 30ean bukatu zen.

Hirugarrena.- Aginduak 10.3 artikuluan xedatzen duenez, Eskabideak baldintza guztiak betetzen ez baditu, interesdunari 10 eguneko epea emango zaio zuzenketak egin ditzan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluari jarraituta.

Ondorioz,

EBAZTEN DUT:

Lehena.- I. eranskinean aipatzen diren zuzendu beharreko eskaeren zerrenda argitaratu ematea.

Bigarrena.- Hamar egun naturaleko zuzentze epea ezartzea. Zuzentze-epea urriaren 22tik 31ra izango da, biak barne.

Hirugarrena.- Jakinaraztea epe hori igaro eta gero, interesdunak agiriak ez baditu aurkezten, eskaerari uko egiten diola ulertuko dela.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 21a.

UNIBERTSITATE POLITIKA ETA KORDINAZIOKO ZUZENDARIA

Miren Artaraz Miñón